

1991ko Urria/29. Alea


EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren babesarekin

... eta kitto!

Kontsumo Bulegoa (K.I.U.B.). Kontsultak aurrez eginez kexu gutxiago Informazio ezak sortzen ditu arazo larrienak

Nahitaez, gaur egun bizi dugun egoeran kontsumitzaile papera jokatu beharra daukagu. Lan edo betebeharrak, KIUB-ek (Kontsumitzailearen Informazioarako Udal Bulegoak) bere laguntza prestatzen du. Bertan azaldu diguten datuen arauera, erreklamazioen kopurua jeisten doan bitartean, kontsultak gehitu egin dira; badi-rudi prebentzio bideek hemen ere funtzionatzen dihardutela.



Uztaila arte, 62 kontsulta eta 94 kexa edo erreklamazio jaso dira aurten Errebal merkatu Plazan dagoen Bulegoan. Iazko datuekin gonbaratuz (urte osoan 93 kontsulta eta 213kexa), goian aipaturikoa argi ikusten da: portzentaiek horrela jarraitzen badute, kontsultek joan zen urteko kopurua gaituzteko dute eta erreklamazioak, aldiz, ez dira seguraski iazko zifretara iritsiko.

Jendeen informazio eskaerei kasu eginez eta sektoreka egindako banaketari jarraituz, galderen %22a Zerbitzu Pribatuari (Banko, ermandate eta elektrogailuen tailerrak) dagozkie; jarraian, Etxeen gaiari loturikoak -gehienak alkilerrekin zerikusia dutelarik, %20 bat. Hauen atzetik Industri Produkzioa (elektrogailuak eta automobila) %16rekin eta Zerbitzu Publikoak (garraioak eta udal zergak) %14az. Beste iru atalek ematen diote amaiera sailkapen honi: %12a beste batzu (ehungintza, tindategiak, eta oindendak), %9a Merkatu Diziplinakoak eta %5az Elikadura produktuei zuzendutakoak.

Banaketa honetan eta sektore batzutatik bestetara desberdintasunak izaten dira; ez doaz guztiak bide beretik. Udal zergari dagokionez, adibidez, jendea informazioa eskatzera

Etxeen alkilerrei buruz galdera ugari.

doa batez ere, ez kexatzen: balorazio katastrala berritu dela, kontribuzioa dela... Oso bestelakoak dira elektrogailu eta automobil arloetan gertatzen direnak. Hemen kexak dira nagusi, elektrogailuen gaien zerbitzuaren karestia dela eta (konponketaz gain, bidaiak eta "mano de obra" delakoa sartzen bait dira kostetan) eta automobileren dagokionez, lehendik erabilitako piezak berriak bezala sartzen dituztelako eta abar. Sektore honen barruan, bigarren eskuko kotxeena da, emaitzak lortzerako orduan, zailtasun gehien sortzen dituen, segurtasun ezaren erruz.

Bada beste gai bat soluzio nahiko korapilatsua duena; hau etxe zaharren alkilerrena da. Alde bietakoak -ugazabak edota maizterrak- heuren eskubideak dutenez gero, askotan ezin dute aurrera jo eta konponketa gaitza gertatzen da. Esan daiteke, gainera, Eibarko berezitasun bezala kontsideratu dezakegula, orain dela urte batzuek bizi izan zuen hazierak ondorio bezala utzi diguna.

Hastear dira Publizitate Ihardunaldiak.

■ "Letra txikia" irakurri behar da.
Dena den, alde handiena edo arazo gehientsuenak aurretiko informazio faltaren eraginez suertatzen dira, %70ren batean gutxi gorabehera. Honen zergatiak erraz ulertzen dira: kontratuaren ospetsu egin den "letra txikia" ez irakurtzea, zer den ondo jakin gabe sinatzea, aurrekontu edo presuposturik ez eskatzea eta mota hauetako beste hainbeste. Heuren zerbitzuek saltzen dituzten artean koka ditzakegu erruen ehuneko beste 30a, gehiegikeriak edo abusoak direla medio: batzutan prezioetan, besteetan zerbitzua prestatzerako orduan.

Udal bulegora iristen diren gai gehienak bertan konpontzen dira edo akordio batera heltzen da "hemengo lana kontsumitzaile babesean eta bitarteko bezala ulertu behar da". Hau lortu ezin denean, Donostian dagoen Lurralde Ordezkaritzara bideratzen dira diligentziak; %10a da bide hori hartzen duena. Ordezkaritzak du azken finean, zigortzeko

ahalmena. Beti ere inspektzioa aurretik doalarik, bertan detektatu bait daitezke dauden irregulartasunak.

■ Kontsumoa emakumeen esku bakarrik?

Bulegora datorren edo telefonoz deitzen duen gehiengo emakumezkoek osatzen dute. Zer dela eta? Ez da erraza jakitea. Ohitura? Gizonezkoen arduragabekeria? Biak batera? Zeinek asmatu!

Aipagarria da, hala ere, jendeak erakusten duen "altruismo" dei genezakeena. Gehienbat ez da bere probetxurako mugitzen; beste baturri laguntzea du helburu, akats berberetan ez daitezen erori.

KIUB-ak, bere aldetik, kontzientziazio lanetan dihardu. Horrela, irailaren 30an hasita eta Urriaren 3a arte, Publizitate Ihardunaldiak antolatu dira; Alberto Vidal, J. Antonio Pérez Millán eta Eduardo García Matilla izango dira Udaletxeko Pleno Aretoan emango diren hitaldien txostenemaileak.

Horren ondoren eta urte amaitu baino lehen Kontsumo Ikasgela, Eco-Móvil Egitaraua eta Gabonetako Haurren Parkea -dozena erdi Tailer Praktiko barne- izango dira prestatuko direnak.

ITURRI ONETIK

Rosa Galdos:

"Guztia da kontsumoa"



Donostian dagoen Lanbide Berrien Euskal Institutuan bete zituen Harreman Publikoetarako administrari ikasketak.

24 urte ditu eta berak darama gaur egun Kontsumitzaileen Udal Bulegoan lana. Aurretik antzerako lana bete zuen ACUALDEN (Deba Kontsumitzaileen Elkargoa).

Zureganatu duzun esperientziatik abiatuz eta aurrera begira, zer nolako bide berriak proposatuko zituzke beharrezkoa ikusten duzun kontzientziazio mailara heltzeko?

Ez dut uste sekretorik dagoenik. Informazio lanetan sakondu behar dugu eta hezkuntza mailan ezin gara geldirik egon. Beraz, informazio gehiago behar da eta horrek dakarkigu, aldi berean, osagarriko hezkuntza.

Gaur egun guztia da kontsumoa. Benetan esateko, ez dakit zer erreklamazio izango den hartzen ez duguna, denetarik hartzen bait ditugu. Eta jakina, bakoitzak bere dekretua dauka eta berari lotu behar.

Bestalde, ahaztu egin behar dira daukagun zenbait ohitura kaxkar. Ez ditugu gauzak egin behar gaurdaino horrela egin direlako; geure buruari galdetu behar diogu zergatik egiten ditugun modu horretara eta ez bestera. Oker eta nahasterik ez bizi ziteke, aurrekontuak eskatzea, ongi begiratzea, sinatu baino lehen, aholkuak jasotzea eta abar luze batera ohitzea beharrezkoa dugu.

Geure funtzioa da diligentziak egitea, baina askoz ere garrantzi handiagoa ematen zaio informazioa kaleratzeari. Askoz ere atseginagoa zait informazio ematea erreklamazioak jasotzea baino. Dena den, segidan ikusten da kontzientziazio maila nola igo den; lehen jendea, sarritan berandu etortzen zen oso, ezertxo ere ezin zenean egin. Ez dira bat edo bi bakarrik gehiegi fidatzeagatik gero damutu direnak. Sarritan oso negatiboak bezala jo dezakegu jarrera horiek.

... eta gainera

- Euskara Batzordearen ekitaldi berriak. (2. eta 3. orr.)
- Eibartarrak, talde berria. (4 orrial.)
- Juanito Saez de Zaitegirekin tertulixan. (7. orr.)
- Udazkena atarian. (8. orrial.)

BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

ETESA
KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66.428 Postakutxa/Tfnoa: 12 19 73 (Eibar)

NEURTEK S.A.

AMAITUTAKO SUPERFIZIEN KALITATEA
KONTROLATZEKO TRESNAK

Txaitxa Zelai 1. Tfnoa. 70 20 79. Faxa: 70 02 12 EIBAR

FIAT DEBA ALDEKO BANATZAILEA

HOGEL, S.A.

EIBAR

Tfnoa. 12 10 00
12 10 19

Bittor Sarasketa 7.

Udaleko Euskara batzordeak prestatuta dauka urtea amaitu arteko jarduna

Udako opor ostetik urte amaierara arteko Udalaren Euskara Batzordeak erabakitako jarduna edo ekintza plana prest dago iadanik. Plangintza honen arauera burutuko diren ekintzak hiru arlotan banatzen dira: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Lehenengo arloaren helburua jendearen euskararen aldeko kontzientzia sortzea da, bigarrenarena euskararen ezagutza hobetzea eta azkenarena Eibarren euskararen erabilerrari bultzada bat ematea.



Datozen hilabetetarako, urte amaierara arte hain zuzen, Euskara Batzordeak prestatu dituen ekitaldi hauen aurrekontu edo presupuesto orokorra 4.000.000 pezeta ingurukoa da. Diru honen bitartez, ahalik eta eskeintzarik zabalena plazaratzea nahi izan da, eta bertan mota askotako ekintzetan parte hartzeko aukera egongo da: hitzaldiak, erakusketak, bertsolari saioak, umeendako jolasak, eta abar luze bat.

Udalaren Euskara Batzordeak egin duen plangintza hau hiru arlotan antolatuta dago. MOTIBAZIOA da lehen arloa, eta hemen bilatzen dena dakitenen artean euskara gehiago erabiltzea da, aldi berean erdaldunen artean euskararenganako jarrera positibo bat sortuz. Arlo honen barruan dauden programak hauek dira:

- Gazteen artean euskararen erabilera sustatu eta bultzatzeko kanpaina. Hau Urrian eta Azaroan egingo da, 800.000 pezetatako aurrekontua izango duelarik
- "...eta Kitto" erakusketa. Hemen azken hiru urtetan kaleratu duguna ikusgai izango da. Abenduaren azken hamabostaldian izango da.
- Erosketetan euskararen erabilera promozionatzeko "EUSKARAZ JATOR" kanpaina egingo da urte amaiera aldera.
- Plangintzaren bigarren arloa EZAGUTZA da eta bere helburua euskaldunen euskara maila hobetzea da. Honen barruan dauden ekintzak hauek dira:
- Txillardegik bereziki irakasleei zuzendutako euskara ikastaro bat emango du EUSKARA HOBE-TZEN jarduteko asmoaren barruan.
- Ohizko AFARIKETAN programa, Urritik aurrera egingo da; PERTSONAIK eta animazio egunak Urrian eta Azaroan. Ekintza hauek O.H.O.ko neska-mutikoei zuzendutakoak dira.
- GAZTETAN programa. Gazteei zuzendua eta Urritik aurrera egingo da.
- Eta azkenik, plangintzaren hirugarren arloa ERABILERA da. izenak dioen bezela, hemen lortu nahi dena Eibarren euskara gehiago erabiltzea da. Arlo honetik eskeintzen zaiguna honako hau da:

Berriz ere Euskara Batzordeak zenbait ekitaldi prestatu ditu, jendeen partehartzea bultzatzeko asmotan.

- "...eta Kitto" hilabetekariaren ale berri bat. Gorago aipatu dugun bezela, "...etaKitto"-ren ale guztiak erakusketa egingo da ere.
- TAKIAN-POTIAN. Ego -barra komisioren barruan, eta batez ere gazteei zuzendua, helburua Eibar eta geure historiako hainbat gauza hobeto ezagutzea delarik
- BERTSOLARI TXAPELKETA-ren kanporaketa bat Azaroaren 24an herriko Polikiroldegian.
- Beraz, ikusten duzuen bezala bada non aukeratu, eta hemendik, ekitaldiaren batetan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

IRAKURLEAREN TXOKOA

eta kitto-ren maiztasunaz

Kaixo:
Ni ere "...eta Kitto" aldizkariaren ohizko irakurle bat naiz eta orokorrean argitalpen honen ezaugarri bati buruz gogoetari ekin nahi diot.
Argitalpen honen jarraitzaile garenok badakigu "...eta Kitto" hilero kalerik gabe kaleratua izan dela, eta honek hilabetekaziari beharrezkoa duen seriotasuna ematen dio, baina Euskadiko leku batzutan kaleratzen diren herri-mailako argitalpenak ikusiez gero, lehendabizi antzematzen den ezberdintasuna maiztasunetan datza. Esate baterako, Arrasateko "Arrasate Press", Bergarako "Berrigara" eta Legazpiko "Ene Bada!" publikazioak astekariak dira, eta beste zenbait herritan kaleratzen direnak (Gernikan, Goiherrin eta Bermion) hamabostean behinekoak. Euskarazko aldizkari honen maiztasuna ikusita, galdera bat egin nahi nioke "...eta Kitto" jendeari; zuen aldizkariaren maiztasuna aldatzeko asmorik ba al daukazu?. Ene ustez, "...eta Kitto" sarriago kaleratuko bazenute, zuen lanak aipaturiko beste herri horietan egiten denarekin oso parekotasun interesgarria lortuko luke, zeren herri hauetako astekari edo hamabostekariak beraien herrietan lortu duten harrera eta onespena ezin hobea izan delako.
Bukatu baino lehen nere idazkia zuen "...eta Kitto"-ren batean argitaratzea eskatu nahi dizuet.
Besterik gabe, agur eta ondo segi.

KAKALARDUA

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia?. Beno hori hala bada eta AYERBE LIBURUDENDAK oparituko duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanetz!

EIBARKO UDALA - EUSKARA ZERBITZUA
"Eta Kitto Sariketa"

28. Aleko Sariketaren erantzuna "San Andres Pasealekuan dago" zen. SARI-TUA: LORENA ARRETXE (116912 telefonoa duena). Hurrengo Sariketarako Urriaren 20a baino lehen bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

Liburu Salduenak IRAILEAN

AYERBE LIBURUDENDA

EUSKARAZ

LURRAK DEIKA. J Urkijo
MAKINAZ IDAZTEKO IPUINAK. J. Govani
NON DAGO WILLY?
DIRUAREN HOTSA. X. Mujika

ERDARAZ


GARRAS DE ASTRAKAN. T. Moix
LA CAZADORA DE INDIANA JONES. A. Alzola
CANCION TRISTE DE CUALQUIER MUJER. E. Jonet
AMOR Y GALLINAS. P.G. Wodehouse

MAIL-ART ERAKUSKETA BIZIKLETA

Eibarko Udalak (Gipuzkoa) dei egiten dizu "BIZIKLETA" gaiaren inguruan antolatutako erakusketa parte har dezazun. Lanak jasotzeko epea: Azaroaren 15a.

Erakusketa egon daitezkeen lanak honako hauek izan daitezke: dibujoa, pinturak, argazkiak, grabatuak, monotipoak, exlibris, kaxak, gaiaren inguruan argitara emandako liburuetan azaldutakoak, bideoak... ikus-komunikazioaren artekin zerikusia dutenak eta bizikletari buruzkoak hain zuzen.

Epai-mahairik ez da egongo eta jasotako lan guztiak erakutsiko dira. Mail-Bizikletaren inaugurazioa Abenduaren 2an izango da Eibarko Udaletxeko Kultura Aretuan. Abenduaren 15a arte egongo da irekita, Erakusketa egongo diren lanak ez dira itzuliko eta amaitu ondoren ARTELEKUR-aren esku utziko dira ikertzaileek gorde eta ikertu ditzaten. Erakusketa katalogoa argitara emango da. Parte hartzaile bakoitzak horren ale bat jasoko du. Ezagutzen dituzun artegileei gonbidapen honen berri emaitzue.



eustakitto



Ordulariak aurreratu beharra

Ene bada! azkeneko alean aipatu nuen bezelaxe, igarotako opor dosi hura behar genuen, ezta lagunok? Sarraitzulo honen jabe den atek ere ospatu ditu bai, oporrrak, beroa dela eta kilotoxoz bazu loditu bait ditu. Nire zultotik begiratzean, jendea, jadanik, "eguna santi mamiña..." udazkeneko abestia abesten dihardu, baita beraien uda-ipu jadanik zaharrak atzera utziaz, eta eskumuturreko ordulariak egiten duen tik-tak-tok-a entzunaz, noiz eta zergatik aldatu beharko duten galde-tuaz beraien buruei. Bai, ordu aldaketa dugu gainean. Eta zergatik? Ba beno... iritzi ezberdinen komentaketak ikus eta entzun ditzaket zultotxo hontatik. Ez dira asko ezta oso zientifikoak ere, hemendik begi bistan eta belarri inguruan izan ditundanak, baina ordu aldaketarekin bat egiteko nahikoa.

Begira, begira!

Untzaga plazako, telefono kabina ondoko bankuan jarritako aitona batek, bere ilobatxoari kontatzen ari zaien kondaira ere ez da makala ez! "Badirudi Kepa, gizon jakintsuren batek, garai haietan (jakin zeuk noiz), eguzkiak, egun laburren aurka eginiko borroken berri izan zuela eta eguzkia gero eta ahulago zegoela jakin. Honela ba, Lorentzori laguntzeko ordua, ordubete aurreratu zuen.

Je_ Baina nola esan aitona bere ilobatxoari, gauaren aurreratzea bertan dugula, Dragoi-bola iluntzean emango dutela eta ama edo aita haserre baldin badago ilun dagoenaren aitxakiz ohera bidaliko dutela?

Eta nork esan ilobatxoari, goizean goiz betiko orduan esnatu eta argitasuna dela bide, berandu zabiltzala ikastola, instituto... edo lanera joateko pentsatzean kriston saltoa eman ohean eta sustoaren-sustoaz orduan zabiltzala ikusiko duzula?

Eta nork esan ilobatxoari, goizean goiz betiko orduan esnatu eta argitasuna dela bide, berandu zabiltzala ikusiko duzula?

Esango al dio norbaitek zortziretan bikote maitemindu guztiak gustorago sentituko direla beraien txoko pertsonaletan, udako edozein arratsaldetan baino, iluntasun goiztiarrari esker?

Eta jakingo al du, Dragoi bolaren gaineretik, zenbat langile hartuko duten aldaketa hau gustora baino gustorago, Lorentzoren esnagailua laisterrago entzun beharra eta bere falta lehentsuago nabaritzea?

Bai, norbaitek guzti honen berri eman-gio dio noizpait, ene ustetan behintzat, eta honela ez bada, guztion bezala bere kabuz ikasiko du Kepak.

Dena dela, ilobatxoak gustora aritu da aitona kontutxo entzunaz, eta ordu-aldaketaren gorabehera oro ez badaki ere, bat edo besteren jakitun bada orain.-Liburuetan ikasten ez direnak ere badute balioa-diotza atxixak Kepari.


Hala ba, banoa oraingoan ni neu ere nire ordularia en forma, batzuek dioten bezela, jartzera, ia udazkenaren etorrerara eta ordu aldaketara errez ohitzen garen.

Gazteok Euskara noiznahi eta nonahi erabiltzeko kanpaina prestatu du Udalak

Eibarko gazteen %4ak bakarrik egiten du berba euskaraz eskolatik kanpo

Eibarko Udalak, euskararen erabileraren aldeko kanpaina bat burutuko du datorren hilean. Kanpaina, "euskara gazteena" lemapean, gure hizkuntzaren erabilera bultzatuko asmoz burutuko da, gazteriaren artean, batez ere. Azken inkesten arabera, Eibarko gazteen

%4ak normalki euskara erabiltzen dute bere bizitza normalean, nahiz eta gehiengo batek gure hizkuntza ezagutu. 800.000 pezetako aurrekontua duen kanpaina honek, kartel eta propaganda bitartez, euskara gehiago erabiltzera konbentzitu nahi ditu gure gazteak.



GAZTERIA, GORABEHERIA, IBILERIA, EUSKERIA; OSA EZAZU BETSOA

Arazoa ez da soilik Eibarkoa. Estudio batzuk adituz eman dutenez, ingurugiro urbanoetan bizi diren gazteek ia ez dute euskara erabiltzen bere bizitza arruntan. Nahiz eta, eskolarizazioaren poderioz, gazteriaren portzentai handi batek euskaraz hitz egiten jakin, gaitasun hori ia ez dute erabiltzen. Jarrera hau konstante bat da Donostian, Arrasaten, Tolosan edo Eibarren. Inkesta baten arabera, gure herriko %4 gazte euskaraz normalki mintzatzen da soilik.

"Euskararen arazoaren aurrean agertzen den jarrera zeharo aldatu da azkenengo urteetan", dio soziologo batek. "Orain dela urte batzuk, gure hizkuntza zekiten gazteen portzentai nahiko eskasa zen. Giro horretan, gure hizkuntza erabiltzeko eta ikasteko grina handi bat sortu zen, euskaldunetaren fenomenoari egundoko bultzada emanez. Gaur egungo gazteek, aldiz, euskaraz hitz egi-

ten jakitea gauza guztiz normalizat hartzen dute, ikastolan edota "B" edo "D" sailetan ikasi dutelako. Baina, gure hizkuntza gauza akademiko bat bezala ikustearen arazoa dago, azterketaz eta guzti. Gainera prestijioaren arazoa dugu. Gure gizarte euskara ia erabiltzen ez bada, baita euskaldun peto-peto diren artean ere, nola erabiliko dute gure gazteek inork hitz egiten ez duen hizkuntza bat? Normala denez, gaztekerara joko dute".

■ 800.000 pezetako aurrekontua

Egoera hau zuzentzeko asmoz, edo gazteen artean konzientziazio lan bat egiteko behintzat, kanpaina bat burutuko dute Gipuzkoako zenbait Udalek: Donostia, Tolosa, Arrasate eta Eibar, besteak beste. Udalek bakoitzak 20 pezeta jarriko ditu, kanpainaren proposamenaren arabera, biztanle bakoitzeko. Eibarren kasuan, 800.000 pezeta erabiliko ditu Euskara sailak gure gazteak ikastolatan ikasi-

tako hizkuntza gehiago erabili dezaten eskolatik kanpo.

Arazoa amankomuna denez, Udalek kanpaina honetan elkartzeko asmoa dute, lema eta iragarri berdinak erabiliz kasu guztietan. Guztira, kanpaina honen aurrekontua, Gipuzkoa osoan, 7.000.000ra ailegatuko da. Nahiz eta diru kopuru izugarria ez izan, gaur egun erakunde publikoek erabiltzen dituztenak kontutan hartzen ba ditugu, kanpainaren arduradunen ustetan lan handia egin dezakete horrelako konzientziazio kanpainek. "Guztiz beharrezkoak ikusten ditut", esaten du Ikastolako maisu batek. "Bestela, gazteek gure hizkuntza eskolako kontu bat bezala ikusteko arriskuan gaude, matematikak edo historiaren antzera".

■ "Amona"-moderno

Urriaren burutuko den kanpaina honetan erreferente bisualak erabili dira, batez ere: kartelak, pe-

■ Estudio batzuk adituz eman dutenez, ingurugiro urbanoetan bizi diren gazteek ia ez dute euskara erabiltzen bere bizitza arruntan

■ Gure hizkuntza gauza akademiko bat bezala ikustearen arazoa dago

gatinak eta kamiseten bitartez. "Euskara gazteena" lema bezala erabiliko duen kanpaina hau prestatzeko, inkesta batzuk egin ziren gazteen asmo eta grinak ezagutzeko. Lan horren arabera, gauza bat argi ikusi zuten saio honen arduradunek: musika da gazteek duten zaletasunik amorratuena, rockaren arloan, bereziki.

Beraz, eta euskara gauza zahar baina gaur eguneko bezala aurkezteko asmoz, aiton-amona batzuek izango dira kanpaina honen irudi eta ardatzak. Aitita nahiko bitxiak, gainera, Harley-Davidson bat gidatzen dutelako eta rockeroen modura jaxten direlako. Asmoa, lehen esan dugun bezala, gure hizkuntza, zaharra izanik, ba duela lekuri gaur egungo munduan adieraztea da. Dena den, egoera hau konpontzeko kitarra-kada batzuek baino gehiago beharko da, nahiz eta Matusalen tartean jarri.

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tfnoa: 11 00 70



Garagardotegia
BURGUER
Gosariak

Goizeko 9etatik aurrera zabalik

EGO GAIN Kalea z/g (Arrate Hotelaren ondoan) EIBAR

MUEBLES
VICTOR

Ubi Bheca, 23

Tfnoa. 70 09 39

E.I.B.A.R.

KIROI PARTIZIPATIBOA



Jose Mari (Peio) Muniozguren eta Mikel Beistegi ditugu Eibartarrak futbol taldearen lehendakari eta lehendakariordea. Betidanik futbolearen aritu dira, talde ezberdinetan parte hartuz, beraz kirol honetaz asko dakite. Aipatzekoa, talde berri honen gida batzordeko guztiak futbolari oso loturik egon direla beren bizitza osoan; eta kirol talde hau osatzea, aupada bat da gizon hauentzat.

Eibartarrak Futbol Taldea

Bultzada berri bat Eibarko gazteentzat

Talde honen sorrera

Bolada honetan sortutako hiru talde dira, bakoitza maila ezberdinean. Talde hauen jokalariek, Urki taldeak etorri dira eta azken hau desagertzean Eibartarrak futbol taldea egitea erabaki zen. Irailak 28an hasiko den liga txapelketaren aurrean jokalariek guztiz liluraturik daude.

aldagelak ere. Argia ere, guretzat arazo bat bihurtu da, entrenamendu saio batzuk 9retan hasten bait dira eta oso gutxi ikusten da ordu hoietan" kontatzen digu Mikelek.

Lehenengo arrebial mailako taldea da, Victor Ibañez entrenatzailea duela; Bigarren Gipuzkoako kopan parte hartzen duen neskeen taldea dugu, Alvaroren gidaritzapean. Azkenik, haurren taldea daukagu, (hala ere, talde alein bat osatzeko asmotan dabilizate) Manu Campos entrenatzaile delarik.

Irailak 28an hasiko den Liga txapelketaren aurrean jokalariek guztiz liluraturik daude. Bere izenak dioten bezala eibartar gazteez osaturiko taldeak dira, 12tik 22 urte bitartekoak hain zuzen ere.

Saioaldiak

Hiru kirol talde hauek, Unbeke zelaian eta Polikiroldegian egiten dituzte entrenamendu saioak. "Unbera joateko bidea oso ondo konpondu dute, hala ere futbol zelaia egoera latzean aurkitzen da, baita

denon arteko adiskidetasuna "Talde hauek, denon artean aurrera ateratze-ko erabakia hartu dugu. Bilera batzuk egingo ditugu, hiru taldeen ordezkaritza egongo delarik, eta pertsona guztiak, proposamenak eta kezak egiteko aukera edukiko dute" diozku lehendakari eta lehendakari ordeak.

Denon arteko adiskidetasuna

Oso garrantzitsua eta azpimarratzekoa da, jokalaria eta gida batzordea-

Kirol talde hauek, esperantzaz beterik aurkitzen dira, mailaz igozteko asmoarekin; ia ba, anima ditzagun, beren helburuak bete ditzaten.

Diruaren beharra

Edozein talde aurrera ateratzea oso zaila gertatzen da, baina gizon hauek biziki hartu dute hiru talde hauekin jarraitzeko erabakia. Horretarako, erregional talderako babesle bat lortu dute, hain zuzen ere, FIAT HOGEI izan da diru laguntza eskeini diena; orain beste bi taldeentzako laguntza bilatzen ari dira. "Honez gain, rifa batzuk atera ditugu ONCE-ren zozketarekin batera. Gainera, sozioak bilzteko kanpaina bat egiten ari gara, bazkide bakoitzaren kuotak 1.000 pezeta balio duelarik. Lankide sozioaren kuota aldiz, 10.000 pezetatikoa da" komentatzen digute Peio eta Mikelek.

Kirol talde hauek, esperantzaz beterik aurkitzen dira, mailaz igozteko asmoarekin; ia ba, anima ditzagun, beren helburuak bete ditzaten.


Izenburua: El clan del oso cavernario
Idazlea: Jean M. Auel
Argitaletxea: Maeva Laser
Orrialdeak: 546

Azteritar idazle honen liburu berezietako baten aurrean aurkitzen gara oraingo honetan. Jean M. Auel-ek, Historiareko munduan interesatutako idazle honek, giro honetan oinarritutako hiru liburu ezberdin idatzi ditu, lehen liburua goian aipaturikoa izanik eta ondorengo biak "El valle de los caballos" eta "Los cazadores de mamuts" bere jarraipena.

1972.an hasi zituen Historiaurreari buruzko bere ikasketak gure idazle honek, superbizipenezko zenbait probatan parte hartuz, liburuaren murgilduz, teknika ezberdinak ikasiaz... Guzti honen ondorio dugularik liburu interesgarri eta irakurterrez hau, idazleak, istorio honetan zientzia datu mordoan sartzen dizkigu, baina guzti-guztiak ipui antzera. Historiaurrea gureganatuz.

Istorio luze eta interesgarri bateko lehen atala dugu liburu hau, ipui guztiari hasiera ematen diolarik. Ayla izeneko neskatza baten bizitzako lehen atala ageri da liburu honetan, bere endea berdinekoak ez diren beste gizaki batzuekin igaro behar duelarik hainbat urte. Azken finean, klan-etik aldegitara behartua egongo delarik.

Ayla, garai latz haietan jaiotako neskatza hark, bere garaian emandako lurrikara itzelatariko bat ezagutuko du eta honek, aurreratzean, bere bizitza oro, guztiz aldatuko du. Aylaren famili-talde osoa, aipaturiko gertaeraren ondoren, hilak gertatzean, Aylak, famili berri bat bilatzeari ekingo dio. Baina naturak eskeinitako harriskuak ez dira gutxi izango, eta tigre baten hatzapakadegandik markatua izango da. Erdi hilik dagoelarik, endea ezberdineko klan batek jasoko du Ayla eta sendatzearekin bat, klan barruan onartua izango da.



Hemen hasiko da Aylarentzat lehen aldiz gizezkoentzat egina dagoela soilik, ikusiko du, emakumea gizonaren menpe dagoela igarri, negarra begietako gaixotasun gisa ikusten dela ikusi... Baina guztiaren gaintik neskatxaren irrikia ageri da, eta klan barruan edukitako zigor bat dela bide ehizean ikasiko du (ezkutan noski), eta sail batetan onena izatera heldu...

Baina talde barruan, badago gorrotoz begiratzen dion norbait, azkenean, norbait hau taldeko buru bihurtzean, Ayla betirako taldetik

LITERATURA

"Ilargi" ezinez sinatzen duen neska honek, bere olerki hau eskeintzen digu hemen. Olerkiez gain ipuinak idazten aritua da, eta badirudi sarriago idazten duela azken jenero honetan, hala ere olerkietarako zaletasun arin bat hartu izan duela azken garai honetan dio berak. Idazteaz gain, irakurketara eta zenbait kiroletan zaletua dugu Eibartar neska hau.

AUKERATU BEHARRAK	EZBAIAREN ONDORIO: SAMINA
Norbaiten zati izatearen beldur naiz, ez bait dut lokarriaren zati bihurtzerik nahi. Korapiloaren-korapilo bilakatzen ari naiz, poliki-poliki, astiro-astiro zulo ilun-sakonean barrena ene nahiaren ezagupena aurkitzeko esperantzaz.	Azken eguneko eztabaida latzaren ondorioz agertu da nire samina. Nire barnean poliki-poliki zulatz doan arima. Zuria zenak eman zidan bere gogortasunaren adibidea gardena ez zela, zuria baizik ematen zidan argibidea.
Laket ditut biak, eta aukeratu beharrak zorutzen nau.	Ez zen haserrea izan ezta gorrotoa ere, ez ezagunaren beldurra, nor izango ete zenaren beldurra. Baina nire minaren arrazoia ezezaguna zitzaidan oraindik, ez nekien, non, zer ezta zergatik. Zergatik beldur hura? Zergatik momentu hartako zirrara hura?
Aukeratzearen luzapenak galduko ditudanaren segurtasuna dakarkit eta begiz-behatu ezin daitekeen tristurari sakonenean murgiltzen nau horrek.	Agian, hartaz gehiegi arduratzeak ni neu hura galdurazi zuen agian, hark, bereganako mirespen eta erakarpen maila handiagotuz zihoala adierazten zuen.
Laguntza eskatuko nuke, nonbait eta noizbait, baina ulertua ez izatearen kezka ideia oro ezeztatzen dizkit.	Beldurra dut, norbaiti gehiegi lotua egotearen beldurra. Arduratzen nau, adierazpen horrek ni neu galduraziko didanaren ardura. Ez dut nahi, ez dut ezbaia batek, betirako bereganatu nazan nahi.
Maite behar ditut eta maite ditut, baina aukeratu beharrak, maitatzea debekatzen dit.	



"Kiñu" Ferretegia

Oraingoan Txomin Zabala Aristondorekin hitz egin dugu. Eibartar gazte honek 25 urte ditu eta 1990eko maiatzean "KINU" burdindegia zabaldu zuen. "Gehien saltzen den produktua Ferretegi hau Bista Eder kalean kokaturik dago. Txomin 18 urte zituenetik burdindegi munduan dago sartuta, konkretuki bere anaiarekin hasi zen mundu honetan lan egiten. "Laguntzak izan ditut negozioa zabalteko, Eusko Jaurilaritzak eta Fondo Sozial Europeo delako organismoak lagundurik, beste guztia nere kontu izan da" dio Txominek.

Hasieran negozioa zabalteko ez zuen lokalik baina geroago Bista Ederreko lokalak utzik zegoela ikusi zuen eta orain bertan dago lanean. Burdindegi bat? Berak lau urteko esperientzia izan ondoren, ferretegiko lana ezagutzen eta lan gabe zegoela ikusiz, burdindegia zabalteaz pentsatu zuen.

Eibar mailan burdindegi industrialen artean, kompetentzia handia dago baina etxerako artikulua saltzen dituen burdindegi askorik ez dago, nahiz eta asko ez izan. Gainera "kompetentzia arazoak prezioaren arabera dago, zeren kalitate honek generoarekin lan egiten dut" azpimarratu digu Txominek. "KINU" burdindegian etxeko artikulua saltzen dira nahiz eta burdindegi normal bateko artikulua ere izan; aldiz ez du burdindegi industrialerako artikulurik.

"Gehien saltzen den produktua "Menagea" da," baina eskaeraren arabera saltzen dugu eta denetik edukitzea gauza ona da."

Edozein klasteko bezeroak ditu Txominek baina gehien erosten duten bezeroak etxeko andreak dira. Txominen ustez negozioa nahiko ondo dioja. "Hasierak beti dira txarrak baina jendeak ezagutu ahala negozioa martxan dioja eta orduan ikusten dira emaitzak." "Denbora gutxi daramat nere negozioarekin baina ondo segitzea espero dut, orain arte emaitzak nahiko onak izan direlako."

"Gainera informatizatzea nahi dut, lana errazago egiteko".

Etorkizunera begira esperantza onak ditu Txominek; "Optimista izan behar gara mundu honetan bestela dena bukatua dago eta horrekin ez dugu ezer egiten. Ez baldin badugu itxaropenik ez dago ezer. Espero dut datozen urteak onak izatea." Guk ere hori espero dugu eta sorte ona opa dizugu.

FIRIN FARAN

- Epea ez dago zehazturik.
- **Hezkuntza berezia behar duen ikasleentzako beka.** Ikasleak ikasten duen zentruan eska behar du. Epea 1991eko Urriaren 31n amaitzen da.
- **LEHIAKETAK**
- **MAIL-ART erakuseta. BIZIKLETA** gaiaren inguruan antolatutako erakuseta. Lanak hauek izan daitezke: dibujoa, pintura, argazkiak, grabatuak... azken finean ikus-entzutekoekin erlazionatuta dauden lan guztiak onartuko dira. Lanak Azaroaren 15ean jasoko dira. Abenduaren 2an izango da inaugurazioa Eibarko Udaltzeko Kultura Aretan. Abenduaren 15era arte egongo da irekita erakuseta. Lanak ez dira itzuliko eta amaitu ondoren ARTELEKU-ren esku utziko dira ikertzai-
- leek gorde eta ikertu ditzaten.
- **Gazteen VII literatur lehiaketa.** Gipuzkoan jaio eta bertan bizi diren 16 eta 25 urte bitarteko gazteek hartu ahal dute parte. Poesi lanak 600 bertsoleerrokoak izan behar dira gutxienez eta narraziozkoak 50ekoak, euskaraz nahiz erderaz idatzitakoak izan daitezke. Prosaz idatzitakoak nobela edo ipuina izan daitezke. Lanak hirukoitzurik aurkeztu behar dira, lerroarte bikoitzez mekanografiatutako folioetan eta zenbatu eta jositako orrietan. Egilearen oinarriko datuak eta NAN-aren fotokopia beharrezkoa da. Lanak ezaugarri (lema) batez sinatuak izan behar dira. Foru Diputazioako Gazteri Zerbitzuak egiten du dei. 1991eko Urriaren 31ko arratsaldeko ordubiak baino lehen aurkeztu behar dira. Hautatutako lan bakoitzari 125.000 pezetako saria emango zaio.
- **Gipuzkoako IV Akordeoi jaialdia 1991.** Gipuzkoako Akodeoi Konfederakundeak egiten du dei. 1991ko Azaroaren 30, Abenduaren 1, 6, 7 eta 8an izango dira egunak. "Gipuzkoa Akordeoi Lehiaketako" adina maila ez duten estatuko akordeoi jolentzat zuzendurik dago. Ondorengo edozein mailatan parte hartzea izango dute:
- "A" maila, "A-FOLKLORE" eta "A-INIZIAZIO"; 10 urterarteko partaideak (91.12.6 barne).
- "B" maila, "B-FOLKLORE" eta "B-INIZIAZIO"; 11-12 urteko partaideak. (91.12.6 barne).
- "C" maila, "C-FOLKLORE" eta "C-INIZIAZIO"; 13-14 urteko partaideak.
- "D" maila, "D-FOLKLORE" eta "D-INIZIAZIO"; 15 urtetik gorako partaideak.



ARRATE Kultur Elkarte
 Goizeko 7,30etatik zabalik
 Pintxo eta tragu xarmantak
Etor hadi
"KULTURALERA"

Kili Kili
Gosariak
Plater kombinatuak
Goizeko soietatik zabalik
San Juan Kalea *Tfn. 11 24 01*

Zagora Hizkuntzen liburutegia
 Arragueta, 7 Tfnoa. 12 72 21
E i b a r

Arizabalaga
MODAK
"SAHETSA"
 Udazken-Neguko moda erakusten dighardugu
 San Andres, 3 Tfnoa. 11 30 41 **EIBAR**

umea
 Umeen eta gazteen arropak
 Errebal, 16 tfnoa. 113164 **EIBAR**

Mabi-Trans
 BULEGOA: Calbeton kalea, 1
 Tfnoa. 11 11 90 - 11 86 71
 GARAJEA: 12 07 73 **EIBAR**

THE JAZZMAN GARAGARDOTEGIA
 HOLANDESAK, ARGENTINARRAK, BENEZIANOAK.....
NAZIOARTEKO SUKALDARITZA
 SAN JUAN KALEA. Tel: 700682 **EIBAR**



Kirol ezberdinetan aritu ondoren, 14 urte zituela sartu zen Rugbyaren munduan 23 urtetako eibartar gazte hau. Eibar Rugby taldean eta Atletico de San Sebastianen jokatu ondoren, orain dela pare bat urte Ohorezko mailan dagoen Getxoko taldean ari da "borrokatzen". Eibarko taldeko kidea zenetik ari da Euskadiko Selektzioan, Espainiakoak ere sarritan deitu izan diola ahaztu gabe. Getxoko taldean oso gustora badago ere (Aurten Liga eskuratuko dutelakoan dago), Frantziako zenbait talderen proposamenak jaso ditu, eta eskaintza hauen pisua kontutan izanik, baliteke datorren urtean bere ilusio handietarikoa gauzatu ikustea.

Iñaki Laskurain

“Rugby-an ezer eskatu aurretik eman egin behar da”

Eta kitto.— Zer nolako jarraipena dauka Rugby-ak komunikabideen eta baita jendearen aldetik?

Lasku.— Alde batetik esan behar da kirol hau gutziz amateur-a denez, ez dagoela etxe komertzialik eta ondorioz difusioa oso eskasa dela. Hala ere jendeari gero eta gehiago interesatzen zaio kirol hau. Getxon, adibidez, jarraitzaile sutsuak ditu. Izan ere, 9 taldetan banatutako 500 fitxa daude, talde horietariko bat emakumezkoena delarik. Beraz, inguru hartan arrakasta handia duen kirola da. Eibarran orain hasi da Rugbyari buruz hitzegiten, arlo honetan zenbait gauza interesagarri egin bait da.

Eta kitto.— Zer nolako ezaugarriak behar ditu Rugby jokalaria bategi?

Lasku.— Talde bakoitzean 15 postu daudenez, ezaugarri horiek postuaren arabera dira. Ezaugarri funtsezkoenak indarra, flexibilitatea, erresistentzia eta abiada lirateke. Dena den, badago hain indartsua ez den jendea. Azken finean, Ajedrezean bezala estrategiek eta mugimenduen garrantzi handia daukate. Beraz, denetik dago; hala ere kontaktuzko kirol bat izanik, jokalariek lan handia egiten dugu indarra lortzeko, adibidez, pesak. Kirol honek daukan gauzarik ederrera zeharo kolektiboa dela da, indibidualki ezin izango bait duzu inoiz ezer lortu. Rugbyaren berez-

ko ezaugarri honen ondorioz adiskidetasun eta lankidetzaren giro ezin hobea sortzen da jokalarien artean.

Eta kitto.—Zenbat denbora ematen duzu prestatzen edo entrenatzen?

Lasku.— Egunero entrenatzen dut. Ostegun eta Ostiraletan Getxon eta beste egunak nire kontura eta baita Eibarko taldearekin. Eibartar taldearekin harremanak izaten jarraitzen dut, noski. Uste dut urrats oso inportantea eman dela, zeren orain dela urte batzuek soilik talde senior bat bazegoen, orain talde jubenila eta gaztetxoentzat Eskola bat dago. Rugby talde lokalak eskolekin lanegiten dihardu umeez behintzat kirol hau frogatzeko aukera izan dezaten.

Eta kitto.— Rugbya kirol sakrifikatua eta gogorra dela esan genezake?

Lasku.— Frantziar entrenatzaile batek zioenenez, rugbyari ari den jendeak asko eman behar du ezer eskatu baino lehen. Gogorra da zailtzarrik gabe. Dirurik ez irabazteaz gain, bakoitzak bere jantziak ordaindu behar ditu; eta gainera ez duzu errekonozimendurik. Kirol honetan izan dezakezun sari bakarra Selektzioarekin giraren bat egitea da, baina hau 30 edo 40 pibilegiatuk lortzen dute. Beraz, argi gelditu behar da kirol honetan asko eman behar dela ezer jaso baino lehen. Rugby-ak daukan beste gauza

aipagarri eta positiboa da Club-a guk osatzen dugula, zeren jokalariek arduratzen gara Direktibaz, jendea entrenatzeaz... Eibarran, esate baterako, gaztetxoekin nago lanean eta Getxon kamisetak partiduetara eramateaz arduratzen naiz.

Eta kitto.— Ez duzu arazorik izan Rugby-a Eibarko Seguru Bulego batetan burutzen duzun lanarekin konpaginatzeko?

Lasku.— Ez dut arazorik izan arratsaldeko 3etan bukatzen dugulako eta nire aita oso ondo "enrollatu" delako nirekin. Aitarekin lan egiten dut eta betidanik oso kirolzalea izan da. Amari beti tokatzen zaio lokatzez betetako kamisetak eta botak garbitzea, kirol-jantzien izugarritzko gastua ahaztu gabe. Argi dago beste egoera familiar bat izan banu dena ezberdina izango zatekeela.

Eta kitto.— Zer nolako proiektuak ditu etorkizunerako Iñaki Laskurainek?

Lasku.— Frantziara joatea gustatuko litzaidake. Azkenengo bi urteetan Frantziar taldeen proposamenak jaso ditut. Nahiko arrisku-tsua iruditu zitzaidan proposamen horiek onartzea ez nengoelako behar bezala prestatua. Frantziara joatea nahiko nuke, batipat han dagoen Rugby maila onagatik. Agian datorren urtean...

...eta kittok! Gomendaturik

Joe Satrianiren Ametsen hegaldia



Gure gomendapenen atal hau jarraitu izan duenarentzat, agian ezaguna egin zaio dagoeneko, gure hilabete hontako pertsonaiaren izena. Bai, aurrerago idatzi dugu bere lehenagoko lan bati buruz; "Flyng with the Alien" edo Alienarekin hegan, hain zuzen. Gogoratzen duzue?

Dena dela, badirudi Satrianiri hegan egiteak zeresan handia ematen diola. Geroago aterako duen diska berriago honen izenburua irakurtzea besterik ez dago hori frogatzeko. "Flyng in a blue drean" edo "Amets urdin batetan hegan" da, aipaturiko izenburu hori.

Badira bi urte diska atera zenetik gaur egunerarte igaro direnak, baina gure eskuetara orain heldu da, eta nahiz eta ez izan azken momentuko lan bat, uste dugu gomendatzekoa dela. Erosi, entzun eta gero, ongi senti arazten zaituzten horietakoa bait da.

Berari buruzko aurreko artikulu hartan esaten genuen bezala, Joe Satriani, gitarrajole gazteen belaunaldian sartuko genuke. Belaunaldi hontako beste bat izendatzekotan Steve Vairen izena aipatuko dugu, bi hauen artean harreman bat dagoelarik: badirudi, Satrianik hilabete batzuk gitarra jotzen zeramatzala, Steve Vaiek, berarekin ikasi zituela lehen notak, eta hortik aurrera, bien artean ikasten jarraitu. Horregaitik, noizbait, bien jotzeko eraren artean harremanen bat somatzen baduzue, ja-

kingo duzue zein den horren arrazoia.

Esanak esan, bere aurreko lan guztien antzera, izugarritzko maixutasuna erakusten digu Satrianik bere "Flying in a blue dream" honetan. Bai jotzeko erari eta bai soinuaren azken emaitzari dagokionez. Azken bi gauza hauei lotuta, aipatzekoa da, eta ez zaitezte harritu, kontuan izanik nolako mailatuz ari garen, Satriani bera dela gitarra guztiak grabatzen dituen, baita baxua, teklatuak, banjoa, harmonika, perkusioa eta ez abesti guztietan baina bai seitant agertzen den ahotsa, nahiz eta gero, beste perkusio jole batzuren laguntza ere eduki. Baina hau ez da guztia. Honetaz aparte, bera da ere diskaren soinuaren produktorea John Cunibertekin batera, azken hau izan delarik tekniko lanetan ari izan den pertsona.

Guk, konpaktoa lortu dugu, eta esango dizuegu, honek irauten duen 65 minutuetan ez dagoela ezer soberan, nahiz eta ia hogeitabesti izan. Izanburu batzuk aipatzekotan, diska zabaltzen duen "Flying in a blue drean" edo "I believe", "Big bad moon", "Headless" izendatuko ditugu adibide bezala.

Beraz eta "Eta Kitto" gomendaturik, hemen duzue Joe Satrianik aurkezten digun izugarritzko "Flying in a blue dream" hau.

EIBARKO HISTORIAN ZIAR

-PEDRO ZELAIA-

Zur dakizu, Elgoibar'en, ia 1368-garren urtian, bazegozela burdiñ-ola edo "ferrerixak". Naiz eta gitxiago, Eibar'en be ba egoazen. Eta, ¿zer egiten zan burdiñ-ola auetan?

Itxasoz, Bizkaiko meatz edo minetatik burdiñ-ariak ekartzen ebezen Debaraiño. Deba'tik Altxolara be urez jua leikian. Materixal onekin, burdiñ-oletan egiten ebezen burdiñ totxoak, lantzak, txispadun armak eta abar.

Gauzak ola zirala, Eibar laister murgildu zan burdiñ-industri biarretan. Burdiñekin, erreketan sortzen zan ur indar eta mendixetako egurugarixakin ikatza egiteko aukera ederra izanaz, gure burdiñ-oletan egiten ziran galtzairuzko biarrak. Laister, baiña, armagintzako biar berezietara jo eben eibartarrak.

Badakigu amalaugarren gizaldiko azkenetan beintzat Gipuzkoan eta Eibar'en konkretuki burdiñ zurdun armak egiten zirala. Eta gizaldi bat geruago -amabostgarrena amaitzen zeguena- Eibar'ko izkillu edo armak ospe eta entzute aundixa artu eben. Esan geinke, beraz, ia 1488-garren urtian Eibar'en armak egiten zirala.

Beste au be badakigu: Karlos bostgarren erregiak bere gerra asmuetarako oso kontuan eta ofizialki euki ebala gure errialde onetan -Eibar, Plasentzia, Elgoibar, Ermua- sortuta zeguan armagintza. Orren ezaugarri lez ikusi geinde 1538-garren urtian, Juan Orbea eta Juan Ermua, Eibar'ko armagiñei, 1500 txispadun armen "pedidua" egin zetseta.

Antonio Iturrioz, gure gizaldia-

Karlos bostgarren erregiak bere gerra asmuetarako oso kontuan eta ofizialki euki ebala gure errialde onetan -Eibar, Plasentzia, Elgoibar, Ermua- sortuta zeguan armagintza.

ren asieran Eibar'ko alkate famatua izan zanak, galdetzen eban bere histori lan batean: Egia ete da gero Franzisko Ibarra, Eibar'ko gizon ospetsu, Santiago Ordenako Zalduna, Flandes'ko Komisarioa eta Felipe bigarren Erregearen Kontseillukoa izan zanak eibartar



armagiñak bialdu ebazela Flandes'era 1.570-garren urtian? Eta eibartar arek izan zirala Beljika'ko armagintzaren sortzailliak?

Gai oni buruz, oraindik ez daukagu ziurtasunik.

Eibar'ko Ayuntamentuko agiri bati esker badakigu baita be gure

errian txispadun eta txispa-motzeko armak egiten zirala.

Duda barik, beraz, esan geinke armagintza izan zala gure errialde auetako biar berezia amabostgarren gizalditik aurrera beintzat.

PEDRO ZELAIA

Juanito Saez de Zaitegi:

“Billarra habilitadezko jokua da”

Jokuak hiru modutakua izan leikez euren ezaugarriak kontutan eukita: kalkulozkuak, suertezkuak eta habilitadezkuak. Askotan hiru gauzok konbinatzen dian arren. Hori zelan dan jakitzeko Eibarren ta Donostian billarran kanpeoi izandako Juanito Saez de Zaitegin izan gara berbetan.

Billarra habilitadezko jokuen barruan sartzen dana izango litzateke. Habilitadia izatiaz gain kontrakuak eitten dittuan mobimentuak ta bolak nundik nora dabizen be kontutan euki bihar da. Inportantiena tiruak eitten dianian ondo azertatzia litzake. Horretarako, asko praktikatziaz gañera, nerbixo eza, asko ta ondo begitzia ta distantzixak ta inpultsua ondo kalkulatzia ezinbestekuak dia.

Billarra, itxuria danez, XVIgarren gizalditik jokatzen da mahai kuadrua luzian hiru bola edo gehixao ipiniaz ta neurri batzuk dakazen palo batekin bultza eñaz. Billarra ba, konzentraziño ta koordinaziño haundixa eskatzen daben jokua dogu erreza emoten daben arren. Juanitok kontatzen dosku billarran nundik norakua zelakua izan dan Eibarren.

Zelan hasi ziñan billarran?

“Eibarren jaixo mil nobezientos diezinuebian ta billarran hasi... hamentxe Casinuan, hamabi urtekin lelen go aldiz. Hau kasinuau (Casino Eibarres-a) nik beti ezautu dot. Ezta-kitt zenbat urte baña... ixa ehun urte eukiko dittu.


Gure etxe barruan konsergia bizi zan, oiñ daonan aittitza, Urdanpilleta Juakin. Ta gu-etortzen giñan hona orduan eh... kafia hartzeko, urakin izaten zan, basuak ipintzen zittuen ta ura hortik (Ibarkurutzeko iturririk) ekarri ta... maixa preparau batzuekin ta... gero, jenterik ez zeuala ba, billarran lagatzezkuen jokatzen. Ta hola-keik hasi nitzan ni billarran.”

Len billarra gehixao zeuan, ezta?

“Eztaziño kalia bat: Guruzetan; hau (kasinokua) beste bat, bi: Rial-tuan bi (oiñ zinia daon lekuan gañan lelen pisuan); gero bar Modernuan, Errebalian, hor be billarra euan; gero karlistetan be bai; elixa aurrian, Zentro Katolikuan, han be bai; Batzokixan; kasino Amistadian; plaza Barrixan, republikanuen zentrua euan lekuan; ta gero Casa del Puebloan bi.

Nik lelen gotan eneban parterik hartzen, gaztia nitzan ta... baña jokatzen zeuben. Año bentitueben edo treintan edo... Casa del Pueblo aurrian zeuan “Campeonato de Eibar”, Eibarko kanpeonatua. Ta Fermin Ziorragak etara eban treinta edo treintaiunuan.

Gero gerriak urten ta, gerra ostian, ni hona etortzen nitzan ta hortxe jarduten neban billarran. Fermiñek be musian edo... subastuan edo, hamen jardute eban kartetan ta. Ta...



hark eh... preguntau eñ estan: -Hi Juanito!! Hik segiduko dok etortzen billarran jokatzeke!!? - Baai. -Ba bixok jokatuko juau-. Ta haxe izan zan nere maixua. Alkarrekin ibiltzen giñan egunero. Holan ibili giñan gu... hogetamar urtian bai!! Pentsai-

giñan domeketan, ta nik aprobetxatzen neban billarran jokatzeke. Beste batzuk ha kursillua eitten genduanian eratera ta... nik nahixao neban billarrera jokatzia. Orduantxe, kursilluan gabizela, tokau zan kanpeonatua ipintzia Donostian bertan; regionala

baño len banda bat jotzia litzake); beste bat dao hiru bandatara, oiñ horixe dao modan (hirugarren bolia jo baño len gitxienez hiru banda jo bihar dittu boliak).”

Gaur egunian badao Eibarren len-go afiziñorik?

“Ez, eztao asko. billarrak be gitxitxu eñ dia. Hor eh... sala de juegos- edo han ezta kitt zer ibiltzen dan, ni horra ez naiz juaten eta. baña ostian hamen gitxitxu eñ da. bueno, gero bizimodua be kanbixau eoñ da, len eh... kasinuetan eta... kafia hartzera juaten ziñan ixa leku guztietan billarra euan, oiñ ez, oiñ hamen (Casino Eibarres-ian) eta besteren batian.

Oiñ beste afiziño batzuk dao. Badaoz banaka batzuk, baña ostian gitxi. Oiñ gau-pasak ta zeretan ibiltzen da gazterixia. Juaten dia kafeterixetara ta eztao billarrak. Billarran eiteko espresamente honatxe etorri bihar da, Dos de Mayo-ko kasinuan be badao (reglamentarixua da hangua).

Reglamentarixuak dakaz 2'84m luzeran ta 1'42m zabaleran, ta hamenguk eukiko dittu 2'20m X 1'10m. Zenbat eta haundixua gatxaua, luziaua.

Gero zera: orduan billarra, ni hasi nitzanian sei txakur haundi kostatzen zan, baña oiñ kanpuan ordua 500 peseta kostatzen da ta gaziak ezta dirurik.”

• **Fermin Ziorraga izan zan nere maixua. Alkarrekin ibiltzen giñan egunero. Holan ibili giñan gu... hogetamar urtian bai!!**

• **Oiñ beste afiziño batzuk dao. Badaoz banaka batzuk, baña ostian gitxi. Oiñ gau-pasak ta zeretan ibiltzen da gazterixia.**

• **Ni hasi nitzanian sei txakur haundi kostatzen zan, baña oiñ kanpuan ordua 500 peseta kostatzen da ta gaziak ezta dirurik.**

zu, ni harekin hasiko nitzan ba... kua-rentaikuatruan edo zinkuan, ta: sesentaitresian irabazi notzan.”

Kanpeoi be izan zara, ezta?

“Kultural Arratian, inaugurau zebenian, sesentaikuatruan edo zinkuan edo; han be neuk etara neban kanpeoi. Espezialidade mordua eñ zittuen han, espezialidade baten Tanbok etara eban ta ni bigarren; ta beste danetan neuk etara neban. Hurrengo urtian be neuk etara nittuan danak barrero.

Sesentaiseisian, ni “corte de navaja” ikasten neuala, Donostira juaten

zan. Parte hartu genduan: Donostia-kuak bi, Eibarkuak bi eta Irunguak; neuk etara neban.”

Zer bihar da billarran jokatze-ko?

“Entrenamentu haundixa bihar da, ta gehixao danakin ikasteko be hobe. Ta gero ba: pulstua ta bistia.

Billarran modalidadiak dao: bat da librian (bola batekin beste bixak jotzia); “al cuadro” beste bat (kuadruak eitten dittue ta quadro barruan bi bola bakarrik, bigarrenian bola bat etara eñ bihar); beste bat dao “a una banda” (bolia jo ta beste bolia jo

Sesentaiseisian, kursilluan gabizela, tokau zan kanpeonatua ipintzia Donostian bertan; regionala zan. Parte hartu genduan: Donostikuak bi, Eibarkuak bi ta Irunguak; neuk etara neban.

MUÑO A

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17
11 62 28

HISPANIA SEGUROS

Fernando Lejardi Lopez

Plaza Barria, 8-1º Esk. Tfnoa: 11 11 49
EIBAR

ZUBIZARRETA

Zapatak
Aterkiak
Gerrikoak

Errebal, 21 Tfnoa. 11 23 43 EIBAR

Careaga



Bitxi eta Erloju-denda
Arte-lanak eta grabatuak

Bidebarrieta, 10

Tfnoa. 11 80 45

Udazkena badugu atarian joka, eta gauza gehienak bezala jendearen eragin desberdina sortzen ditu. Batzuk gustoko, beste batzuk beldur eta beste hainbatzuk indiferente. Udazkenari ezin baldin bazaio erakargarritasunik kendu, batzuentzat ez da hain urtaro edo sasoi atsegina. Gai hau ardatz moduan hartuta, jendearen eritzia jasotzera kaleratu gara.



Udazkena atarian

★ Zenbat eta eguna luzeago, jendea alaiago

Gai honi buruzko eritzi kualifikatu bat jasotzeko asmoz, Juan Sanchez Vallejo psikiatra elkarrizketatu dugu:

"Zenbat eta eguna luzeago izan, jendea askoz ere alaiago bizi da, nik ere nahiago ditut beranduago iluntzen diren egunak. Orokorrean behintzat ideia hau nahiko logikoa ikusten dut. Udazkenak eta udaberriak gizakiengan sekulako eragina izaten du, eta patologia bat duten pertsonentzat eragin negatiboa. Honi explikaziorik topatzea zaila da, baina bezeroak garai hauetan sintomatologi bereziak izaten dituzte: gaixotasun psikosomatikoak (guk geuk sortutakoak) hara nola ultzerak, asmak, liseriketa desegokiak, depresio mota ezberdinak, e.a.

Jendeak geroz eta garrantzi gehiago ematen dio lanari; estresa, geroz eta ugariago da, exito profesionalaren ordainez. Nik udazkenaren eragina arazo honetan ikusten dut. Uda bukatzen da, denbora libre eta aske sentitzeko sasoi, lanean hasi beha-

rra, aktibitate desberdinen jarraipena, betikotasunaren presentzia eta guzti honen eraginez astia alde batera laga behar. Beraz, niretzat, arazo hauetan datza gakoa."

★ Umeengan eragin berezirik ez

Iritzi honetaz aparte, maixu batenaganaino hurbildu gara.

"Niri, partikulariki, udazkena mendiari eta naturari dagokionez urtaro polit, aberatsa eta orekatua iruditzen zait. Baina urtaro guztiak bezala, bere gauza erakargarriak baldin baditu ere, udazkena hitzak esaten duen bezala eta bere osotasunean udaren azkenarekin identifikatzen dut; hau da, denbora librearen amaiera, astia zure gustora planifikatzeko denboraren amaiera, egun luze eta argiaren bukaera, egunerokotasunaren hasiera, e.a.

Hala ere ez diot udazkenari bere erakargarritasuna ukatzen. Bestalde, umeengan edo ikasleengan ez dut urtaro honen inzidentzia berezirik somatzen, kurtso hasiera guztiak dituzten ezaugarriak izan ezik: kurtso eta irakasle berriari moldatu beharra,

ikasturte berriko erritmora egokitzea edota udak umearengan uzten duen "empanada" kentzen ahalegintzea. Bestela umeak udaberriaren edo neguan bezain dinamikoak iruditzen zaizkit udazkenean, hau da, ume bakoitzaren ezaugarri partikularretatik aparte, umeak beti ume."

★ Udazkena eta mendizalea beti lagun

Patxi Arriaga, Klub Deportiboko mendizalearen ustez "udazkena urteko garairik onena eta politena da mendian ibiltzeko. Kolore kontrasteak benetan indarrez azpimarkatzen dira basoan.

Basoek bere jantzia galtzen dute eta orbela benetan polita bilakatzen da. Urteko tenperaturarik onenak, mendian ibiltzeko behintzat, udazkenean ematen dira. Egia da tristura pixka bat ematen duela uda alde batera uzten duzulo eta neguan sartzeko aurrepausua delako; baina tristura melankoniatsua hori ere polita suertatzen da."

Udazkena gustokoa al duzu?

1. Jose Martin Zubiate. DYAn lanean. 22 urte.

"Niretzat urteko sasorik hobereana da, gustokoena. Izaerak zerikusi handia dauka; ni adibidez, bakartia naiz, eta isiltasun, bakartasun hori udazkenean lortzen dut. Bestalde, mendiak eta naturak orokorki indar handia hartzen du, eta ahal dudanean mendira joaten naiz."



2. Marta Karrera. 17 urte. Ikaslea.

"Udazkena!... ba, ez dakit zer esan, udak duen alaitasuna atzean uzten da, gainera euria eta eguraldi eskasa izaten da normalean, beraz ez dut batere gustoko."




3. Ana Etxekoandrea.

"Oso tristea da benetan! Udaberria da nik gehien atsegin dudana, lora mordo, eguraldi ederra..."



4. Juli Martin. Etxekoandrea.

"Ni ez naiz hirikoa, herri txiki batekoa baizik, eta nire ustez urtaroak askoz markatuagoak daude. Udazkenean fruitu asko hazten dira; adibidez: mahatsa, melokotoia... Zerbait berezia dauka udazkenak."



5. Angel Ramos. 67 urte. Jubilatua.

"Ehiza garaia denez gero, asko gustatzen zait; usoak, galeperrak... e.a. garai hontakoak dira. Txarrena eguzki orduak murrizten direla eta horrek tristura apur bat sortarazten du nigan."



6. J.A. Ramos. 67 urte. Jubilatua.

"Uda askoz ere gehiago atsegin dut, eguraldi ona, oporrak... Udazkenarekin batera betikotasunera bueltatzen gara."



7. Edurne eta Juan. Lanean.

"Beste urtaroak bezain gustokoa dugu udazkena, ez diogu ezer berezirik aurkitzen, axola ez zaigun gai bat da."

Urriako - Agenda

■ **HITZALDI INFORMATIBOA:** EMAKUNDEK bultzaturiko "EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOEN PLANGINTZA". Udal Emakume Bulegoak antolatutako.

23an: Arrats. 4retan eta 7etan UDALETXEAN.

■ **IKASTAROAK:**

"GORPUTZA KOMUNIKAZIO BIDE BEZALA".

Iraupena: 18 ordu.

Ikastaro hau Emakumearen Bulego eta "Centro Familiar y Social" delakoaren artean antolatu da, Elixabet Eguren Andereak, (Mediku eta Sexologoa dena), emango duenari.

Argibide gehiago goian aipaturiko tokietan.

JAZZ-DANTZA/GORPUTZ EXPRESIOA/ARGAZKILARITZA Urriaren 1an, Ikastaro hauetan parte hartzeko matrikula zabalduko da.

Izen ematea Udaletxeko Kultura Sailean. Goizeko 11etatik-13'30etara.

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA**

Urriaren 1tik-14ra: Udaletxeko Kultura Aretoan K. Deportiboko Argazki taldekoek egindako lanen bilduma.

Udal Kultura Sailak antolatutako

■ **LEHIAKETAK**

Indalezio Ojanguren IV Argazki Lehiaketa
Eibarko Hiria Gazteen VII. Ipuin Lehiaketa
Mail Art Deialdia.

■ **TEATROA**

25an: Geroa Taldea. "El amante de Lili Marlen" Lanarekin. Gaueko 22'30etan Unibertsitate Laboralean. Sarrerak. Ikasle eta Langabe-tuak: 300.- Pzta. / Gainontzekoak: 400.- Pzta.

■ **KIROLA**

- **Mendi irteerak**

Klub Deportiboko Mendizale taldeak antolatuta:
- 6an: Andoain - Santa Lucia
- 20an: Orbaizetako Ola - Orreaga
- 27an: Santa Lucia - Mendiola

■ **TOPALEKUN**

Irailaren 27tik - urriaren 6ra: Argazkiak. Egilea: Julio Mendikute. 24ean: Arrats. 8etan. Diapositibak "Basamortua eta Tuaregak". Egilea: I. Osoro. 26an: Arrats. 7'30etan. Hitzaldia. "Hizkuntz gatazka eta fedea Euskal Herrian". Hizlaria: Paulo Agirrebaltzategi.

NORK-ZER

Koordinatzailea: Fernando Muniozguren.

Erredakzio taldea: Ana Aizpuru. Idoia Irazola. Fernando Muniozguren. Amaia Muruamendiarrak. Oskar Rekalde. Arrate Zuloaga. Aitor Gorosabel. Jose Luis Gorostegi. Letizia Gomez. Mitxel Gorosabel

Argazkilaria: Jose Valderrey. Mireia Ugarteburu.

Literatura: Ane Sarasketa.

Maketazioa: Jose Valderrey

Komikia/Marraskia: Ander Gisasola.

Inprimaketa: Gertu

calcul mecano

Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria
Tfnoak. 70 07 50 / 70 11 95

EIBAR (Gipuzkoa)



Juan Jose Irigoyen

TEKNIKARI KOMERTZIALA

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA., S.A.
ASEGURU AHOLKULARI ETA ARTEKARIK

Juan Gisasola, 6 behea
Tfnoa. 70 29 98
20600 EIBAR

Tfnoak: 42 91 38 / 39 / 40 / 41
FAXa: 42 67 27

EIBARKO ESAERIA

Aundixak euren aunditasuna, txikixeri zor detse